

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea. Gure proiektua eta enpresa ondo funtzionatu dezan hainbat gauza beharrezkoak ditugu baita ere. Honako hauek dira beharrezkoak gure proiekturako:

1. **Giza baliabideak:** Langileak beraien ezagutzen eta esperientziaren arabera gauza batean edo beztean arituko dira. Garrantzitsuena taldearen kudeaketa da eta horretaz buruzagi bat arduratuko da.
2. **Baliabide materialak:** Gure produktua sortzeko instalazio batzek beharrezkoak dira esate baterako fabrikaren eraikinak. Bestalde beharrezkoak dira makinaria eta tresneria produktua egin ahal izateko. Hau produkzioa sortzeko ezinbestekoa da.
3. **Baliabide finantzarioak:** Gure enpresaren ekonomia ondo funtziona dezan kapitala eta finantzaketa iturriak esate baterako banku-maileguak, inbertsioak edo diru-sarrerak beharrezkoak dira. Hau enpresaren iraunkortasuna luzatzen du.
4. **Baliabide intelektualak eta teknologikoak:** Teknologia gure produktuaren oinarri bat da funtzionatu ahal izateko esate baterako ekipamendu teknologiko aurreratuak, automatizazioa eta digitalizazioa.
5. **Harreman-baliabideak:** Gure enpresa ondo funtziona dezan garrantzitsuena ez da produktua aurrera ateratzea baizik eta bezeroen beharrak asetzea eta horrela erostea. Hornitzaileak eta kolaboratzaileak ere garrantzitsuak izan daitezke.
6. **Lege eta arau baliabideak:** Lege eta araudien arabera jarduteko baimenak eta lizentziak egokiak izan behar dira, lan-kontratuak, jabetza tituluak eta aseguruen babeza.

Baliabide horiek guztiek elkar osatzen dute, eta horien kudeaketa funtsezkoa da enpresaren helburuak lortzeko.